

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NEZ-NLk milioi bat euro jarriko ditu gazteak oinarrizko sektore ekonomikoetan edo praktiken bitartez kontratatzea sustatzeko

*Kontratazioaren osagarri gisa, 1,5 milioi euro jarriko ditu Bermatutako Errenta jasotzen duten pertsonak lanaldi murriztuan edo osoan kontratatzeko*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 14

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak-Nafar Lansarek, aurten, gutxienez milioi bat euro jarriko ditu enpresek langabezian dauden gazteak kontratatzea sustatzeko bi deialditarako, haien laneratzea erraztearren. Hain zuzen ere, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren (S3) barnean [praktiken kontrataziorako](#) eta [lehentasunezko eremuetako enpresetan](#) kontratatzeko laguntzak dira, eta horietan ordainsariak ezingo du LGS baino bi aldiz baxuagoa izan. Iaz, 296 gaztek lortu zuten lana 170 enpresatan.

Bi kasutan, %11 eta 20 arteko diru-laguntza handiagoa lortuko da emakumeak kontratatzeagatik. Halaber, laguntza handiagoa izango da desgaitasuna duten pertsonak edo Bermatutako Errenta jasotzen dutenak kontratatzeko.

Gazte Berme Sistemaren erregistratuta dauden 30 urtetik beherako langabeak praktikan kontratatzeko, NEZ-NLk 700.000 euro jarriko ditu. Laguntzak 3.600 eta 6.120 euro artekoak izango dira, titulazioaren arabera.

Eskaerak [ondorengo estekan](#) aurkez daitezke, kontratu-harremana hasi eta hurrengo hilabetean edo gastua egiteko baimena argitaratu eta handik hilabete batera, egun hori baino lehenagoko kontratazioetarako, eta azken eguna ekainaren 4a izango da.

30 urtetik beherakoak lehentasunezko ekonomia-eremuetan eta 50 langile baino gehiagoko enpresatan kontratatzea sustatzeko deialdiak aurten berrikuntza bat izango du; hau da, beste diru-laguntza bat eskatu ahal izatea iaz laguntza jaso zuten kontratuak luzatzeko, gehienez ere 12 hilabeteko diru-laguntza lortu arte. Kontratazioa bultzatzeko pizgarria amaitzean, 300.000 euro jarriko dira. Laguntzekin hilean 1.045 euro lor daitezke.

Enpresa kontratugileek eskaera aurkeztu ahal izango dute [esteka honetan](#). Aurreko deialdietan bezala, aurkezteko epea hilabete batekoa izango da kontratazioa hasten den egunetik zenbatzen hasita eta kontratua maiatzaren 3a baino lehen egin bada, ekainaren 4a bitarte aurkeztu ahal izango da.

### Bermatutako Errenta

Era berean, Nafarroako enpresak Bermatutako Errenta jasotzen duten pertsonak kontratatzea bultzatzeko laguntzen deialdiaren (1,5 milioikoa) aldaketa argitaratu da duela gutxi.

Berrikuntza gisa, eskaera egin ahal izango da baita ere lanaldi murriztueterako eta kontratuen luzapeneterako, gehienez 12 hilabetera bitarteko diru-laguntza izanik. NEZ-NLk 550 eta 1.000 euro arteko kopurua jartzen du hilean kontratu bakoitzeko.

Enpresek, erakundeek edo langile autonomoek hilabete bateko epea dute, kontratazioa egiten denetik kontatzen hasita edo, maiatzaren 3a baino lehen egin bada, hilabeteko epea gastuaren baimena argitaratzen denetik; hots, ekainaren 4ra arte.